

BA-GARA?

**Ez dogu beldurrik
ez dogu lotsarik
nor garan, zer garan
aitortzeko**

T. Monzon

Berba ederrak, politikak, arrokeriz beteak, baina egiazkoak? Benetan gure izakerea eta izana adierazteko beldurgabeak gara? (Lotsagabearena beste gauza bat izan leitekenez...) Egia da ez daukagula arazorik gure izatea agertzeko edonon eta edonoiz?

Adibideak jartzearen or doaz batzuk: Abertzalea, kristaua, euskalduna... Bataren batek, berak argi daukela esango dau, irurak sentitzen dala eta edozein eta edonon adierazteko ez daukala inolako arazozrik. Egunkari eta beste komunikabideetara begirada bat botatzea baino ez dago ikusteko abertzale, kristau edo euskalduna izan eta batez ere bizi danak, zelango jipoi, irribarre maltzur eta mesprezio jasan bear dauazan. Zerbait izatea erreza da, baina bizitzea beste kontu bat dala dirudi.

Politika mailan. abertzaletasuna dirudi mundu guzti-ko kalte eta ezbearren erruduna: gerra, asarre, ikusezin eta konpon-ezina. Abertzaletasunaren erruz gertatzen ei dira orreek guzti orreek, azken batean pentsakera politiko au banatzailea ei dalako, eta gaurko gizarteak bizi dauazan era guztietako krisiak (ekonomikoa, morala...) konpontzeko, batasuna bear dalako.

Batasunaren izenean ezberdintasun guztiak lurperatzea nire ustez itsukeria bizi izatea da, begi-aurrean dagoena ez ikusi gurea. Egia dan arren danok jaio inela negarrez eta bilusik. ez da egi txikiagoa izkuntzak. eziketak, jatorriak, lekuak, oiturak, azalaren margoak, erlijioak, eta apur bat estutu ezkerro, arrazak berak ere bereiztu egiten gaituela. Au guzti au ez da pentsakera bat, Izadiaren legea baino, bestela Naturako espeziei begirada bat emotea baino ez dago ori ikusteko. Beste guztia begiak sarratzea, itsukeria da. Oraindino bada bataren bat Naturaren legeen aurka dabilenik? Badirudi orrela dala, danok bardinak izan gaitezcan batzuren aleginak ikusirik.

Batasuna eta bardintasuna ez dira gauza berbera. Eta gainera nire ustez ez da bardintasuna, berdinkeria baino aldarrikatzen dabena. Artaldea bezela. Nork be-

reiztu leikez artalde bateko ardiak? Ni neuk. andi baltza aparte itzita, ez naz gai edozein artaldetako ardiak desberdintzeko. Txakurrak berak ere, zaindaria eta orden jartzailea izan arren ere, ez dot uste bereizten dauzani. Artzaina da ia bakarra pizti bakoitza zein dan dakiana. Eta orixe dala uste dot gugaz ere egin nai dabena, artalde biurtu, aari eta guzti, ardi-txakurrik falta barik. Artzaina izan daitela nora eta nondik goazen, zelan eta noraino eldu bear garan, dakian bakarra.

Erljio kontuan ere, gauzak ez dagoz obeto. Kristautasuna adierazten dauana gaur egun, kasurik onenean tontotzat artzen dabe, eta orregaitik asko ez dira ausartzen bere burua kristautzat agertzen. izatea eta bizi izatea: "Kristaua naz baina ez dot praktikatzen". Zer dago onen atzetik? Banaz baina ez naz? Kristau izateari itzi barik, beste era batera bizi? Zer da "praktikatze" ori? Obeto laga, erantzun bako galdera asko sortuko litzateke eta.

Dana dala, gotzai, abade edo eleiz gizonak aipaturiko moral krisialdi orretan salaketaren bat bota ezkerro, bereala datoz betikoen kexak: Atzerakoiak, mundutik aparte bizi dira, ez dabe gaurkotu nai, ez dabe ulertzen gaurko gizartea... Eleizak edo/eta erlijioak ete daukaz ere, gaurko gizartean dagozan arazoen erru guztiak? Beti danez errezagoa iñori errua botatzea, norberaren akatsak aitortzea baino...

Eta zer esan, ez danik esan, euskalduntasunari buruz? Aspaldion errezagoa bada ere euskaldun bizi-tzea, ez dot uste bear eta ahal bezain beste "praktikatzen" danik. Badago oraindino naiko lana! (eta ez erreza)

Azken batean, ainbat gara pekatuotariko bat edo danak daukaguzanak: abertzalea, kristau edo/eta euskalduna izatea. Baina abade asko arren pekatua parkatzeko prest, ez goaz autortzarik egiten, euki ere, ez daukagu damutzeko asmorik eta.

ENRIQUE ITSASALDE